

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko uztailaren 15etik 19rako astea


➤ INGURU MAKROA:

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: KPI



Datuaren analisisia

Euroguneko inflazio-tasa % 1,3koa izan zen ekainean, aurreko hilean eta datuaren lehen kalkulua baino hamarren bat gehiago. Datuak adituek aurreikusitako % 1,2ko tasa gainditu zuen.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Eurostat/Europako Banku Zentralak. Europako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasunen multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: ZEW ALEMANA



Datuaren analisia

Alemaniaiko inbertitzaileen konfiantzak behera egin du uztailean, AEB eta Txinaren arteko gerra komertzialak, Irango krisiaren larriagotzeak eta Brexitari buruzko zalantzek eraginda, ZEW ikerketa ekonomikoen institutuak prestatutako adierazlearen arabera. Inbertitzaileen konfiantza -24,5 puntukoa izan da aurreko hileko -21,1 puntuen aldean, bere daturik txarrena iazko urritik eta 21,8ko batez besteko historikotik oso urrun. Alemaniako ekonomiaren oraingo egoeraren balioztapenari dagokionez, okerrera egin du uztailean, -1,1 puntutaraino, aurreko hileko 7,8aren aldean.


Euroguneari begira, ZEW indizeak pixka bat okerrera egin du, eta ekaineko datua baino hamarren bat beherago geratu da, 20,3 puntutan.

Adierazlearen azalpena

Alemaniaiko Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniako ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomikoa" islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniako ekonomiaren hurrengo sei hileetako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: M. UNIBERTSITATEKO KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisisia


Michiganeko Unibertsitateko kontsumitzailearen konfiantzak, uztailleko atariko irakurketan, 98,2tik 98,4ra egin du hobera, baina espero baino gutxiago (98,8). Aurreikuspenek ere pixka bat hobera egin dute, 89,3tik 90,1era, espero baino hamarren bat gehiago. Egungo baldintzek, aldiz, okerrera egin dute, eta datua 111,9tik 111,1era jaitsi da, 112,8raino igotzea espero zenean.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen sentimenduaren indizea (ICC) kontsumitzailearen konfiantza neurtzen duen adierazle ekonomikoa da, eta, beraz, kontsumitzaileen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Michiganeko Unibertsitateak argitaratzen du hilero. Amerikako 500 etxetan ekonomiaren egoera orokorraren eta gaur egungo zein etorkizuneko finantza-egoera pertsonalaren inguruan egindako inkestan jasotako datuak ditu oinarri. Kontsumitzailearen konfiantza altuak hedapen ekonomikoa sustatuko du, baina, baxua bada, hazkunde ekonomikoaren uzkurdua eragingo du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: KPI



Datuaren analisisia


Kontsumorako prezioen indizea % 0,6 igo zen ekainean, 2018ko hil beraren aldean. Oso gorabeheratsuak diren elikagaien prezioak kanpo uzten dituen adierazlearen igoera oraindik urrun dago % 2ko jomugatik. Nolanahi ere, kontzeptu guztiak barne hartuta, KPIa % 0,7 igo zen iazko ekainetik. Aldakuntzan eraginik handiena izan zuten sektoreei dagokienez, erregaiaren, uraren eta elektrizitatearen prezioek % 2,2 egin zuten gora. Aldakuntza negatiboa izan zuen sektore bakarra garraio eta komunikazioena izan zen (-% 1,3).

Adierazlearen azalpena

KPIa hilero prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: BPGd



Datuaren analisisia

Txinako ekonomia % 6,3 hazi zen 2019ko lehen sei hilekoan, ia hiru hamarkadatan izan duen hazkunde-tasarik txikiena. 2018ko ekainaz geroztik, herrialdeak % 6,2ko hazkundera izan du. Sektoreka, lehen sei hilekoan gehien hasi zena hirugarren sektorea izan zen (% 7), dagoeneko Txinako BPGd osoaren % 54,9 dena. Bigarrena, aldiz, % 5,8 igo zen, eta lehen sektorea % 3. Industria sektorea eta eraikuntza izan dira, hain zuzen, hazkunderaren moteltzearen erantzule nagusiak.

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Txinak ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
07/22	Estatu Batuak	Chicagoko Fed-en indize nazionala	--
07/23	Espainia	Balantza komertziala	--
07/23	Estatu Batuak	Richmond manufakturen indizea	5
07/23	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-7.4
07/23	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.35m
07/23	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 0.1
07/24	Japonia	Japoniako Jibun Bank fabrikazioaren PMIa	--
07/24	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
07/24	Japonia	Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa	--
07/24	Frantzia	Enpresen konfiantza	106
07/24	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	51.6
07/24	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	52.7
07/24	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.5
07/24	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	45.1
07/24	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	55.3
07/24	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	52.2
07/24	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	47.6
07/24	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	53.3
07/24	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	52.1
07/24	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	50.9
07/24	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	--
07/24	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
07/24	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berrien salmenta	% 5.3
07/24	Estatu Batuak	AEB Petrolio gordinaren inbentarioak DOE	--
07/25	Espainia	Langabezia-tasa	% 13.65
07/25	Alemania	IFO enpresen egoera	97.0
07/25	Alemania	IFO aukerak	94.0
07/25	Alemania	IFOren gaur egungo ebaluazioa	100.4
07/25	Eurogunea	EBZren birfinantzaketa mota nagusia	% 0.000
07/25	Eurogunea	ECB gordailuen organismoen tasa	-% 0.400
07/25	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	--
07/25	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	% 0.8
07/25	Estatu Batuak	MoM xehekako inbentarioak	--
07/25	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
07/25	Estatu Batuak	Gas naturalaren fluxu inplizitua ingurumen-inpaktu prozesuan	--
07/25	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	--
07/26	Japonia	YoY Tokioko KPI	% 1.0
07/26	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	101
07/26	Italia	Sentimendu ekonomikoa	--
07/26	Estatu Batuak	Hiruhilekoko BPGd urtekotua	% 1.8

BURTSA:

Burtsako indizeen balantzea mistoa izan zen astearen bukaeran Europan, eta negatiboa AEBetan eta Asian. AEBen eta Txinaren arteko negoziazio komertzialen blokeoak sortutako ezinegonak eta Banku Zentralen adierazpenek erakarri zuten inbertitzaileen arreta. Estatu Batuetako presidenteak adierazi zuen bide luzea dagoela egiteko Txinarekin akordio komertzial bat lortzeko, eta oraindik bere Gobernuak 325.000 milioi dolarreko isunak ezar diezaiokeela Asiako herrialdeko produktuei. Gainera, Trump berriro kexatu zen, Pekinek G20 goi-bileran nekazaritza-produktu amerikar gehiago erosteko promesa betetzen ari ez delako. Halaber, AEBen eta Iranen arteko tentsioa gaiztotu egin zen. Alde batetik, Iranek 2015eko akordioa ez betetzen jarraitzeko mehatxua egin zuelako, eta Trumpek, bestetik, Ormuzgo itsasartean drone iraniar bati tiro egin ziotela baieztatu zuelako, hark itsasontzi amerikar bati mehatxua egin ondoren. Hala ere, ikuspegi komertzialetik dena ez zen negatiboa izan. AEBen eta Japoniaren arteko aldebiko akordio komertzial bat lortzeko egindako aurrerapausoen berri eman zuten iturri ofizialek, nekazari estatubatuarrek Japoniako merkatura sartzeko erraztasunak barne hartu lezakeena, automobilen atal japoniar zehatz batzuen gaineko muga-zergen murrizketa baten orde, hain zuzen. Banku Zentralei dagokienez, litekeena da EBZ bere inflazio-helburua aldatzeko aukera aztertzen egotea; izan ere, % 2tik behera, baina hurbil dagoen KPIa ez litzateke egokia izango krisialdi ondoko aro honetarako. Erreserba Federalari begira, New Yorkeko FEDeko presidentearen adierazpenek hilaren amaierarako interes-tasen murrizketa baten aurreikuspenen oinarriak jartzen lagundu zuten.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.679,87	-0,80	16,54
IBEX 35	9.170,50	-1,32	7,38
DJ EURO STOXX 50	3.480,18	-0,50	15,95
DJ STOXX 50	3.186,63	0,16	15,46
FTSE	7.508,70	0,04	11,60
S&P 500	2.976,61	-1,23	18,74
Dow Jones	27.154,20	-0,65	16,40
NASDAQ	8.146,49	-1,18	22,78
NIKKEI 225	21.466,99	-1,01	7,26
MSCI GORAKORRAK (Lo)	58.119,64	0,42	8,80
MEXBOL	41.606,54	-2,44	-0,08
BOVESPA	103.451,90	-0,44	17,71
SHANGHAI	3.062,77	-0,22	17,29
Errusia Rts Mosku	1.350,69	-2,68	26,38

ERRENTA FINKOA:

Arriskuarekiko beldurak eta Banku Zentralen adierazpenek beheranzko mugimenduak eragin zituzten zorraren errentagarritasunean, bai Europan bai AEBetan. Horrela, hamar urterako bonu amerikarraren errentagarritasunak 7 op egin zituen atzera, % 2,06raino, eta hamar urterako Alemaniako tasa, aldiz, 11 op jaitsi zen, -% 0,32raino. Zor espainiarrari dagokionez, hamar urteko bonuari eskatutako errentagarritasunak 18 op egin zituen behera, % 0,39raino, eta arrisku-prima 70 puntutara murriztu zen. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,77	-0,05	-0,16
ESPAINIA 2 URTE	-0,49	-0,08	-0,24
AEB 2 URTE	1,82	-0,03	-0,67
ALEMANIA 10 URTE	-0,32	-0,11	-0,57
ESPAINIA 10 URTE	0,39	-0,18	-1,03
AEB 10 URTE	2,06	-0,07	-0,63
ALEMANIA 30 URTE	0,27	-0,11	-0,60
ESPAINIA 30 URTE	1,38	-0,20	-1,23
AEB 30 URTE	2,58	-0,07	-0,44
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	49,22	-0,11	-39,15
MARKIT ITRX EUR XOVER 06/24	252,59	6,67	-101,09

DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroak balioa galdu zuen dolarraren aurrean, Alemaniako Zew konfiantza indizearen datuak espero baino baxuagoak izan zirelako, eta AEBetako kontsumoaren datuak aurreikusitakoak baino hobeak. Liberak ere atzera egin zuen, Erresuma Batuan hauteskunde aurreratuak egiteko aukeraren aurrean. Lehengaietan, petrolioaren prezioak % 7,33 egin zuen behera. Mexikoko Golkoan berriz ekin zioten ekoizpenari, petrolioaren inbentarioek gora egin zuten AEBetan eta energiaren nazioarteko agentziak eskariaren aurreikuspenak murriztu zituen. Bada, horrek guztiak eragina izan zuen kotizazioan. Urrearen balioa, bestetik, % 0,68 igo zen, 1.425,37 \$/ontza mailaraino.

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,12	-0,43	-2,15
Yena / Euroa	120,87	-0,62	-3,83
Libera / Euroa	0,90	0,09	-0,18

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald 2019
Petrolio (Brendt)	62,31	-7,33	17,19
Urrea	1.425,37	0,68	11,14

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.